

Esku sekularra

eta *probidentziaren sinbolo gisa. Michelangelo-k eskua jasota duela irudikatzen du Jesukristo azken judizioko pintura ospetsuan.

Ik. Sinboloa; Ahalguztia.

Esku sekularra

Erdi Aroan agintaritzza zibila esan nahi zuen. Elizak, bere eskuz, inor heriotzara galtzerik ez zeukanez, agintaritzza zibilararen eskuetan uzten zuen Inkisizioak emandako zigorra bete eraztea.

Ik. Boterea; Estatua.

Eskualde-eliza

Erreformaren ondoren Alemaniako land edo eskualde bakoitzean ofizialduriko *Konfesioa, beste guztien artean, legezko egoera eta pribilegio bereziak zituen. Suitzako Kantoietako Konfesioei ere badagokie izen hori. Nolabait *estatu-elizak edo "eliza nazionalak" dira horiek ere.

Ik. Erreforma protestantea.

Eskuezarpena

Norbaiten buru-gainean eskua edo eskuak ipintzearen keinu liturgikoa. Sustrai historiaurrekoak dituen *sinboloa: hebraiarren bitartez Jesusengana heldua eta gaur egun kristau guztiak erabilia.

Hainbat sakramentutan erabiltzen dute Elizek; ordenazioko sakramentuan, funts-funtsezko eta dorrigarrezko *erritoa da, sakramentologia katolikoaren arabera.

Ik. Ordenazioa; Kirotonia.

Eskukotasuna

Ik. Libertatea.

Esoterikoa/exoterikoa

Etimologiaren arabera, esoterikoa=barrurakoa eta exoterikoa=kanporakoa itzul daitezke.

*Misterio-erlijio zaharretan sarbidatuentzat bakarrik ziren irakatsi eta *erlijio-kizun gordeak esoterikoak deitzen zituzten: hau da, talde bereziaren barrukoak; beste edonorentzakoak, berriz, exoterikoak deitzen zituzten, hau da, kanporakoak edo erlijiozko elkarterako sarbidapen berezia egin ez dutenentzakoak.

Dena dela, esoterikoa/exoterikoa konzeptuak bestelako erlijioei ere badagokzie.

Ik. Sarbidapen-erritoak.

Esoterismoa

Maisuren batek, talderen batek eta bereziki erlijio-elkarteren batek bere irakatsi behinenak aukeratuentzat eta sarbidatuentzat gorde eta besterentzako ezkutuan edukitzeko joera edota legea. Bakoitzaren *irakasbidea garbiago eta zintzoago gordetzearren egiten dute hori.

Ik. Esoterikoa/exoterikoa; Elkartea.

Esperantza

Sin.: Itxaropena (teol.)

Esanahi zabalez zera da: etorkizuneko ondasunen baten; lortzen nekeza baina ez ezinezkoa denaren, gura eta bilaketa.

Kristau-teologian hiru bertute teologolarikoa bat da, *fedearekin eta *maitasunarekin batera.

Gizakiaren izaera mundutar eta historikoaren egitura dago itxaropena, etorkizunarekiko irekiera gisa.

Biblian, eta bereziki *kristautasunean, jarrera eta bertute positiboa da, Jainkoak etorkizunerako agindutako *salbamenari irekita eta zain egotea. Jainkoaren errebeldioaren dinamikaren barruan dago esperantza, Haren salbamen-egintza historiko bakoitza, etorkizuneko egintza salbagarrien oinarri eta agintzari gisa ulertzen denez.

Jainkoak agindutakoa beteko duelako uste sendoa da kristau-esperantza. Larritasuneko *beldurraren kontrakoa da.

Fedean oinarritzen da eta horren segurtasun berbera du Bibliako esperantzak: hau da, Jainkoak orain arte aurrera eramandako eta orain bertan daraman salbamen-ekintza fedez aitortzean oinarritzen da. Horixe da, ordea, Jainkoaren etorkizuneko jokabidearen bermea, eta ez aparte eta hutsean egindako agintzari soila. *Salbamen-historiaren egitura da agintzaria; eta Jainkoaren zintotasuna eta leialtasuna historia horretan egindako obra salbagarriei darie, etorkizunerako esperantza gisa.

Judaismoaren eta juduen esperantza *Mesiaren etorrerara biltzen zen eta biltzen da orain ere.

Kristauak, berriz, Jesukristo aitortzen dute Mesiatzat, eta historiaren erdigunetzat. Kristau-esperantzaren dinamikak Jesukristoren aintzako etorreran edo *parusian eta Jainkoaren betiko erreinuan du bere erreferentzia nagusia; orduan beteko baita Kristoren *piztueran ireki eta hasitako munduaren eta historiaren aro berria.

Kristau-esperantzaren gaiak edo itxaropideak eskatologikoa deitzen ditu teolo-

giak, hau da, norberaren bizitzaren eta munduaren amaian edo azkenenean (eschaton) "gertatuko" direnak eta historiatic harantzakoak: Jainkoaren judizioa, piztuera, heriotzondoko ordaina (zeruko saria).

Kristau-teologiaren arabera, esperantza eskatologikoa ez da begira edo zain egote hutsa, etorkizuna "zaintzea" baino. Hau da, Jainkoaren erreinua historiaren azkenean edo eskatologian ezarriko den zain egon gabe, mundu eta historia honetan eraikiz doala uste du kristauak, eta bere bizitzan erreinu hori landuz joan behar duela, *zuzentasuna, *askatasuna eta *maitasuna egikaritzuz, hura azken garaietan beteko den arte.

Kristau-bertutea denez, etsimen edo desesperazioari kontra-jartzen diote esperantza edo itxaropena.

Ik. Bertute teologalak; Eskatologia; Agintzaria; Mesianismoa; Mundu berria; Jainkoaren erreinua.

Paulo Agirrebaltzategi

Espiazioa

Sin.: Medeapena; Satisfakzioa; Pekamena

Erlijiozko hizkeran, Jainkoari *bekatuaren bidez eginiko iraina garbitzea edo kenduriko ohorea itzultzea, horretarako *otoitza, penitentzia, *oparia edo bestelako erritoren bat Hari eskainiz.

Erlijio guztietan agertzen da nolabait ideia hori: hau da, arau moralak edo erri-tualak urratu direlako haserreturik omen dagoen Jainkoa eztitu edo baretu beharra. Horretarako *opariak eskaintzen zaizkio, *barauak edo bestelako penitentziak egiten dira, nolabait kendu zaion ohorea medeatu eta zorra atera edo kitatu beharrez.

Juduek urtero egun berezi bat zuten, espiazio-eguna edo *Yom Kippur izenokoa. *Jerusalengo jauretxean errito bereziak egiten zituzten Herriaren bekatuak botatzeko (Leb 16). Egundorretan batere lanik ez zuten egin behar eta hertsiki bete behar zuten barauaren legea. Gaur ere juduentzat jairik nagusia da Yom Kippur delakoa.

Teologia katolikoan bereziki erabiltzen da, bekatua barkatu ondoren, horren kutsua kentzeko edo dagokion *pena edo zigorra betetzeko Jainkoari eskaini behar zaizkion neke-sariak: otoitzak eta penitentziak eta bestelako egite onak, adierazteko.

Kristautasunak sinesten duenez, giza bekatuaren espiazio edo satisfakzio benetakoa eta berez aski den bakarra eta baztergabeko merezimendua duena, Kristoren heriotza da. Horrekin bat eginda bakarrik dute baliorik, fededunek beren edo besteren bekatuak medea-

tzeko edo espiatzeko egiten dituzten egin-tzek.

Katolikoekin sinestez, Kristoren espiaziozko merituak bataioaren eta absolutzio sakramentuzkoaren bidez esleitzen zaizkio fededunari.

Bakatu-zorraren ordainketa eta bekatua-ren barkamena bereizi beharra dago, beraz, teologia katolikoaren arabera.

Ik. Satisfakzioa; Medeapena; Garbia/Lohia.

Espiazio-eguna

Ik. Yom Kippur.

Estasia

Sin.: Gainezkaldia

Norberaren baitatik irtetea esan nahi du grezieraz. Erlijiozko edo erlijio-gisako fenomenoak denez, zera adierazten du: bizipen mistikoaren edo trantze profetikoaren eraginez konorterik gabe edo gelditzea. Estasiak hartu duenak sentsuak galdu edo egiten dituzte tarte horretan; eta gorputzeko bestelako ondorio zenbait ere gertatu ohi zaio batzutan: arnasa moteltzea, *lebitazioa edo gorputza lurretik goratzea, etab.

Era batera edo bestetara erlijio askotan agertzen da fenomeno hori: Errito dionisiarretan, *derbitxe-en eta xaman-en artean oso nabarmena da. Asiar erlijioetan estasiaren modukoa lortu nahi dute *gogartearen bidez, gizakia Absolutuagan nolabait suntsituz.

Kristautasunean ere, bereziki *santuen artean, gertatu izan da estasiaren fenomenoak, Jainkoarekin bat-egitearen ondorio gisa. Hala ere, Eliza ofizialak bazterreko fenomenotzat hartu ohi du estasia, eta beti ere kontuz ibiltzen da, edozein estasi-modu jatorriz onetsi aurretik.

Erlijio-alorretik kanpo ere, estasiaren fenomenoak sortera ohi da, alkoholaren, drogaren, *barauaren, dantzaren edo musikaren bidez.

Ik. Xamanismoa; Mistika; Erlijiozko musika.

Estatalismoa

Kristautasuneko hizkeran, Elizaren joera tradizionala, bere barrutiak barruti zibilen eta bereziki estatuen arabera banatzekoa. Estatuaren mugak sarritan artifizialak eta indarrez ezarriak direlarik, ez dira Herri edo erakuntza etniko eta historiko-kulturalen araberrakoa. Orduan Elizak estatuaren interesak defenditzen ditu eta ez Herri edo etnienak.

Ik. Estatuak; Estatu-erlijioa; Estatu-Eliza.